

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure aplikazioaren arrakasta lortzeko, hainbat bazkide estrategiko eta sozietate funtsezkoak dira. Lehenetsuneko bazkideak dira ikastetxeak eta hezkuntza-zentroak, aplikazioa ikasleen artean ezagutarazteko eta orientazio akademikorako tresna bezala erabiltzeko. Ikastetxeek aplikazioa beraiei eskainiz gero, horien etorkizun profesionalari buruzko erabakiak hartzen lagunduko diete, informazio fidagarri eta pertsonalizatu batean oinarrituta. Horretaz gain, ikastetxeekin lankidetzan aritzeak aplikazioaren erabilera sustatu egingo du eta gure merkatu-segmentura, gaztengana eta ikasleengana, modu eraginkorrean heltzeko aukera emango digu.

Bigarrenik, orientazio akademiko eta profesionaleko adituak ezinbestekoak dira gure aplikazioaren edukia fidagarria, eguneratua eta profesionala izan dadin. Aditu hauek erabiltzaile bakoitzaren galdeketaren emaitzak aztertzen dituzte, gustuen, gaitasunen eta etorkizuneko errenta helburuen arabera. Haien ekarpenak aplikazioaren balioa handitzen du eta erabiltzaileek konfidantza gehiagorekin erabiltzen dute gure zerbitzua.

Hirugarrenik, enpresa teknologikoak eta garatzaileak funtsezkoak dira, aplikazioa garatu eta mantentzeko. Haien laguntzarekin, aplikazioa erabilerraza, segurua eta funtzionala bihurtzen da, eta erabiltzaileak esperientzia hobea izateko aukera du. Gainera, aplikazioa etengabe eguneratzea eta arazo edo akatsen aurkako mantentze-lanak egiteko aukera ematen du, horrela erabiltzaileak beti kalitate handiko zerbitzua jasotzen du.

Era berean, lan-atarien eta enplegu-plataformen sozietateak gure informazio-iturri nagusiak dira. Haien datuak erabiliz, aplikazioak erabiltzaile bakoitzarentzako lanbide egokienak aukeratzen ditu, baita horien soldata orientagarriak eta ikasketa bide gomendatuak ere. Horrek aplikazioari balio praktiko eta pertsonalizatua ematen dio, eta gazteen erabakiak seguruagoak eta informatuagoak izatea laguntzen du.

Azkenik, administrazio publikoa eta gazteentzako erakundeak funtsezkoak dira proiektuaren babes eta hedapena lortzeko. Haien laguntzarekin, diru-laguntzak eta sustapen-programak eskuratu ahal izango ditugu, baita aplikazioa gazteen artean zabaltzeko ekintzak antolatu ere.

Laburbilduz, sozietate estrategiko hauek guztiak aplikazioaren kalitatea, sinesgarritasuna, erabilera erraza eta hedapena bermatzen dute. Ikastetxeekin, adituekin, enpresa teknologikoekin eta administrazioekin elkarlanean, gure aplikazioa gazteentzako orientazio profesional pertsonalizatua, erraza eta fidagarria bihurtuko da.